


2019ko azaroan Euskal AEko industriako prezioek %2,5 egin zuten behera aurreko hilaren aldean

Aurreko urtearen aldean (2019ko azaroa 2018koaren aldean) %0,2 jaitsi ziren

Euskal AEko industriako prezioak %2,5 jaitsi dira 2019ko azaroan, aurreko hilabetearekin alderatuta, Eustatek egindako datuen arabera. Datu horiekin, azaroko urte arteko tasa, azken hamabi hilabeteetan industriako prezioek izan duten aldakuntza jasotzen duena, %0,2 negatiboa da.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Azterketa sektorial zehatzagoak agerian uzten du 2019ko azaroan honako hauek izan direla aurreko hilabetearen aldean adar inflazionistenak: *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (%4,4ko igoera), *Produktu informatikoak, elektronikoak eta optikoak* (%0,8ko igoera) eta *Kokeriak eta petrolio finntzea zein Farmazia-produktuak* (%0,4ko igoera bietan). Aitzitik, prezioen beherakadarik handienak sektore hauetan izan dira: *Energia elektrikoa, gasa, lurruna eta aire girotua* (%16,5 behera), *Erauzketa-industriak* (%0,9 behera) eta *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* (%0,7ko jaitsiera).

Xede ekonomikoaren araberrako ondasunen sailkapenari segituz, aurreko hilarekin konparatuta, *Kontsumo-ondasunek*, oro har, %0,3 egin dute gora *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioek eraginda, %0,3 gora egin dutenak; izan ere, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioek %0,1 egin

dute behera. *Bitarteko ondasunak* eta *Ekipo-ondasunak* egonkor mantentzen dira (%0,0ko aldakuntza), eta *Energia* %9,4 jaitsi da.

Urte arteko datuei doakienez (2019ko azaroa 2018ko azaroaren gainean), prezioen hazkunderik handienak honako adar hauetan izan dira: *Material eta ekipo elektrikoa* (%2,5 gora) eta *Garraio-materiala* eta *Produktu informatikoak, elektronikoak eta optikoak* (%2,0 gora bietan). Alderantzizko norabidean, jaitsiera handienak, hemen: *Ehungintza, larrugintza eta zapatagintza* (%3,8ko beherakadarekin), *Energia elektrikoa, gasa, lurruna eta airea* (%1,7koarekin) eta *Farmazia-produktuak* (%1,5ekoarekin).

Sektore handietako prezioen urte arteko aldakuntza positiboa izan da *Ekipo-ondasunetan*, haietan prezioak %1,2 igo baitira. *Kontsumo-ondasunak*, oro har, ez dira aldatu, %0,0; izan ere, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioak %1,5 igo dira, eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak, berriz, %0,2 jaitsi. *Bitarteko ondasunen* prezioak %0,3 jaitsi dira, eta *Energiarenak* %1,0.

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2019ko Azaroa

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %		
		2019aza / 2019urr	2019aza / 2018aza	2019aza / 2018abe
INDIZE OROKORRA	103,7	-2,5	-0,2	1,4
Sektore-banaketa				
Erauzketa industriak	104,8	-0,9	1,4	2,6
Manufaktura-industria	104,9	0,1	0,0	1,5
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	96,7	-16,5	-1,7	0,6
Ura	107,3	0,3	1,0	2,7
Industria-sektore handien arabera				
Kontsumo-ondasunak	103,7	0,3	0,0	0,4
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	103,2	-0,1	1,5	1,7
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	103,8	0,3	-0,2	0,1
Ekipo-ondasunak	107,2	0,0	1,2	1,5
Bitarteko ondasunak	102,5	0,0	-0,3	-0,1
Energia	105,3	-9,4	-1,0	5,9

Oinarria 2015=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62